

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 793

*131/2022 EBAZPENA, otsailaren 3koa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendarigereuntearena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko ESIan Gernikaldeko Lehen Mailako Arretako Unitateburu lanpostua izendapen askez betetzekoa.*

Barrualde-Galdakaoko ESIko Gernikaldeko Lehen Mailako Arretako Unitateburua lanpostua hutsik dago. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez, eta Osakidetza Ente Publikoaren erakunde sanitario integratuei buruzko uztailaren 3ko 100/2018 Dekretuaren bidez, betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Gerentzia Zuzendaritza honek, honako oinarri hauen arabera

#### OINARRIAK

1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetako langile finkoa izatea (estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-legepeko kontratuduna) eta lanpostua jabetzan edukitzea A1/B1 lanbide-taldean.

b) Honako titulazioetako bat edukitzea:

b.1.– Medikuntzako eta Kirurgiako lizentzia, Familiako eta Komunitateko Medikuntzako espezialitatean, edo, Osakidetza Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinak ezarritakoaren arabera, Medikuntza Orokorreko mediku eginkizunak betetzeko ezarritako titulu, ziurtagiri edo diplometatik bat edukitzea; edo Pediatriako espezialitatean.

b.2.– OLTko titulazioa edo Erizaintzako Unibertsitate Diploma, edota Erizaintzako Gradua, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandakoa, Osakidetza Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinak ezarritakoaren arabera.

c) Hizkuntza-eskakizuna: 2. hizkuntza-eskakizuna derrigortasun-datarik gabe.

d) Gutxienez 4 urteko lan-esperientzia izatea A1/B1 lanbide-taldeetako zereginetan.

2.– Aintzat hartuko diren merezimenduak.

– Dagokion Lehen Mailako Arretako Unitatea kudeatzeko Memoria-Proiektua baloratuko da.

Lanpostu hau betetzeko interesgarria izan daitekeen eta balioa erants dezakeen edozein merezimendu aurkeztu ahalko da.

### 3.– Euskararen ezagutza.

Osakidetzan Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.

### 4.– Eskaerak egiteko epea eta aurkezteko modua.

Interesdunek Osakidetzako Barrualde-Galdakaoko ESIko Langileen Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak (Labeaga auzoa 46A, 48960 Galdakao). Horretarako, 15 egun balio-duneko epea izango dute, ebazpen hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aurkeztu ahal izango dira, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako eran.

Interesdunek Barrualde-Galdakaoko ESIko Langileen Zuzendaritzara bidali behar dute eska-bidea (Labeaga auzoa 46A, 48960 Galdakao), beren datu pertsonal guztiak eta curriculum vitae dokumentatuarekin batera.

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren kopia konpultsatua.
- Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren kopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-legepeko kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- Baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioaren kopia konpultsatua.
- Lehen Mailako Arretako Unitateko Memoria-Proiektua.

CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan ageri den moduan; hala ere, eskatzaileak horren berri eman behar du eskaeran.

### 5.– Balorazio Batzordea.

Batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak baloratzeko, eta izangaiei horren berri emango zaie.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, dagokion izendapena egiteko proposamena aurkeztuko da. Lanpostua hutsik uztea proposa dezake epaimahaiak, betiere aurrez txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiek betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak zerrendatuko dira, eta lanpostua euretako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango dira.

### 6.– Hautaketa prozedura.

Ezin izango dira baloratu, inolaz ere, deialdia EHAAan argitaratzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ez eta eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, proposamena osatuko da dagoz-kion funtzioak esleitzeko. Lanpostua hutsik uztea proposa dezake Batzordeak, betiere aurrez txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiek betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

#### 7.– Prozedura amaitzeko ebazpena.

Honen bidez hasitako prozedurari amaiera emango zaio (lanpostua esleitzea edo betetzeke uztea), Osakidetzako Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari-gerentearen ebazpenaren bidez, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta baita Osakidetzaren intranetean zein web-orri korporatiboan ere argitaratuko da.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu EHAAn argitaratzen den egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean.

#### 8.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Galdakao, 2022ko otsailaren 3a.

Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari-gerentea,  
JON GUAJARDO REMACHA.